

IKASLEEN TXOKOA 88. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 1-2



Ezekiel liburuaren ohar kritikoak



Izenburua: Ezekiel
 Idazlea: Jasone Osoro
 Argitaletxea: Elkar
 Saila: Bihotz taupadak
 Argitaratze data: 2009

Ezekiel eta bere lagun taldearen gertakizunak batu ditu Jasonek liburu honetan. Gaur egungo Euskal Herrian gertatzen den amodio kontaketa bat da. Ezekiel, ama eta arrebarekin bizi den mutila da, eta bere lagunak, Leon, Etxe eta Ola dira. Presa dute lehen musua esperimentatzeko eta hortaz, apustu bizian dabilta.

Idazleak, gaur egungo gizartearen oinarritutako pertsonaiekin, mutil batek sentitzen duen maitasun eta gorrotoa kontatzen dizkigu. Ezekielen garrantzia istorio honetan, nahitaezkoa da, abentura ugariaren sustatzailea baita. "Ros" ezizenarekin ezagutzen den protagonista da; harengandik, bere sentimendu eta bizipenak espero ditu irakurleak. Etxe,

istorioan gutxi nabarmentzen bada ere, oso ondo karakterizatuta dagoen pertsonaia da. Ekintza gehienetan azalduko den mutil harropuzta da Leon, baita saltsa guztien piperra ere. Ola, Leonekin batera egiten den pertsonaia sinplea eta zeresan handirik ez duena da. Dena den, kontakizunaren zati batzuetan protagonismo apur bat izaten du. Interesgarria izan liteke liburu hau deskribatzen duen adjektiboetako bat; izan ere, 133 orrialde soilik edukitzeke, gai asko sakontzen dira. Gainera, idazleak, gaur egungo gazteriaren hizkera jorratu du, irakurketa atsegina eta ulerterraza eginez, nahiz eta noizean-behin hitz itsusiren bat erabili. Era berean, esaldi motz eta bi-ziak kontakizunaren erritmoa

bizkortzen du. 19 kapitulu laburretan dago idatzita liburuak, kapitulu bakoitzean gai zehatz bat landuz. Kontamoldea, oso egokia da; nerabezaroan, ezkutuan izaten ditugun hainbat sentimendu oso ondo islatzen dira; aitzitik, batzuetan, sentimendu horiek ez dute istorioarekin bat egiten. Nerabezaroa eta amodioaren inguruan jakin-mina duen edonorentzat liburu aproposa da Ezekiel. Txundituta utziko zaitu!

Egilea:
E. Pagola,
2020-11-30

Ezekiel 14 urteko nerabe bat da. Aitarik gabeko etxe batean bizi da eta nerabe batek dituen arazoak ditu. Egun batean, bera eta bere lagunak apustu bat egitea bururatu zaie: ea nork ematen dion lehen muxua neska bati. Hasieran, apustu guztiak bezala hasten da; broma moduko bat bezala. Hala ere, dena okertzen hasten da kuadrillakoek apustua hil ala biziko gauza bat dela ikusten hasten direnean. Gainera, eskolako proiektu bat egiteko irakasleak Ezekiel gelako neska ederrenarekin jarri du. Zer gertatuko ote da orain?

Nerabe batek irakurtzeko modukoa hitzak dira liburu hau deskribatzeko egokienak. Jasonek oso kontuan eduki du norengana dijoan zuzendua liburu hau. Erabiltzen duen hizkera informalk, nerabezaroan denoi gertatzen zaizkigun arazoak, denok izan ditugun gogoe-tak... honek guztiak argi uzten du irakurle gazte edo nerabeei zuzendua dagoela. Horrek ez du

esan nahi heldu batek ezin duen irakurri; liburuan zehar gai serio batzuk ere ukitzen baitira. Aitzitik, nerabe bat askoz identifikatuagoa sentitu daiteke liburu pertsonaiei gertatzen zaizkien arazoekin, izan ere, seguruaski beraie ere gertatzen zaizkie horrelakoak eguneroko bizitzan.

Gainera, nerabe askori irakurtzea gustatzen ez zaiela kontuan harturik, irakurketa bizi bat egiteko sortuak dauden esaldiz betea dago. Hizkera informalk eta esaldi arinek egindako konbinazioarekin, astuna egitea ezinezkoa den irakurketa bat ziurtatzen du. Nerabe baten ikuspegitik kontatua egotean, askoz errazago erlazioatu daiteke irakurlea istorioarekin.

Horrez gain, bizitzan zehar oso garrantzitsuak diren gai eta balore askotan sakontzen da. Honen adibide dira maitasuna, sexu identitatea, adiskidetasuna... Azken finean, gomendagarria da nerabe batek balore guzti

hauek lehenbailehen ikasi eta ulertzea, bizitzan hobeto moldatzeko. Liburu pertsonaien bidez balore hauek eta askoz gehiago aurkeztu eta garatzen ditu, izan ere, lau protagonistetako bakoitzak balore bat errepresentatzen du. Liburu hau irakurri duen nerabe bat baino gehiago ziurrenik horren ondo deskribatuta dauden pertsonaiekin identifikatu sentitu da.

Horrenbestez, aspaldian irakurri ez baduzu eta irakurtzen hasi nahi baduzu, liburu hau zuzentzat egina dago. Animatu irakurtzera!

Egilea:
Izaro Roa Mugica
2020-11-20

Ezekiel da protagonista, 14 urteko mutil bat. Bere amarekin eta arrebarekin bizi da, aitzak txikia zenean abandonatu egin zien. Beraz, amak nazka asko hartu zien gizonezkoiei. Arrebak Maria izena du eta 16 urte ditu. Ezekieli txikitatik Ros deitzen diote bere arrebaren arropekin joan delako, bere arrebaren arropak arroxak ziren eta. Bere kuadrilla 4 mutilek osatuta dago: Ola, Etxe, Leon eta bera, Ezekiel. Apustu bat egiten dute ea zeinek ematen dion lehenengo muxu bat neska bati. Horretarako, zerrenda bat egin dute. Bertan, apustu horre-

tan parte hartuko dutenen nesken izenak agertzen dira. Apustua egiten ari diren bitartean, hainbat ezusteko gertatzen dira: Etxek, lagun isilak amodiozko sekretu bat du, lagun artean gatazkak sortzen dira, sexologiako klaseak edukitzen dituzte, Maria eta Leonen harremana hobetu egiten da...

Niri iritziz, liburu oso interesgarria eta erakargarria da. Izan ere, kapitulu bakoitzeko intriga sartzen zaizu eta gehiago irakurtzea sorrarazten zaitu. Liburu hau ere oso aproposa dela uste dut gure adineko mutil edo

neskentzat (13/14 urtekoentzat). Bertan, adin hauetako edonori gertatzen zaizkion gauzak azaltzen dira eta. Pertsonaiekin batzuen jokabidea egokia iruditzen zait. Adibidez, Ezekielen jokabidea. Izan ere, beti egon da besteei laguntzeko prest eta lagunei errespetatu die. Olaren eta Leonen jokabideak ordea, ez zaizkit hain egokiak iruditu. Ola eta Leon, gehiegi haserretzen baitira. Adibidez, Ezekielek ez zien kontatu Elenaren mutil laguna dela eta asko haserretu ziren.

Liburu errex irakurtzen da eta oso ulerterraza da, ez da

astuna. Esango nuke, luzeagoa izango balitz hobeto egongo zela azkar irakurri dugu eta. Liburuak ere bere gauza txarrak ere badauzkala iruditzen zait. Adibidez, ez daude irudirik, protagonisten argazkia bakarrik dago portadan. Horregatik, beste pertsonaiek guk imajinatu behar ditugu eta ez dela oso aproposa iruditzen zait. Denbora asko galitzen duzu eta.

Beraz, drama pixka bat gustatzen bazaizu eta 13/14/15 urteko mutil edo neska bat bazara liburu hau irakurtzera gonbidatzen zaitut.

Egilea:
Nahia Etxarri
2020-11-19

Ba al daude lagunaren artean haserrik? Lagun talde bati gertatzen zaizkion amodio harremanak kontatzen ditu liburu honek, baita dituzten gorabeherak ere. Lagun hauek ez diote inoiz musurik eman neska bati, eta helburu bezala neska bati musu ematea izango da. Ideia zoragarri bat izango dute, zerrenda bat egitea. Baina zer egongo da zerrenda hartan? Lau lagunak lokal batean elkartzeko dira hitz egiteko eta sekretuak kontatzeko. Zer sekretu ezkutatzeko ari ote dira?

Liburu hau gehien definitzen duen hitza entretenigarria da. Kapitulu bat irakurri eta segidan beste bat irakurri nahi duzu. Izugarria da!!!

Ezekiel asko gustatzen zait, liburuari txispa ematen dio eta, hau da, liburu arazo gehienak berari gertatzen zaizkio, harriagarria da!! Beste pertsonaiek parte asko hartzen dute, baina nik protagonismo gehiago jarriko nioke Olari, beste pertsonaiei gauza interesgarriak gertatzen zaizkie eta Olari ez. Denek dute beraien kapituluak, Olak berriz ez. Bukaera oso polita iruditzen zait, baina nik amaiera itxia goa jarriko nioke, intrigarekin uzten dizu eta. Liburu hau oso errealista da, gazteen hizkuntza erabiltzen baitu. Liburu honi nik marrazki batzuk jarriko nizkioke historiaren zehar, bestela oso

pisuduna egiten da eta. Gazteentzat oso erakargarria izan daiteke, gazteen hizkuntza oso ondo erabiltzen du eta. Liburuan bizitzan gertatzen diren benetako gauzak kontatzen ditu, adibidez: lagun taldeetan batzuetan liderra dagoela... Liburu ira-kurtzen duzunean oso identifikatuta sentitzen zara batzuetan, eta momentuetan istorioaren barruan zaudela ematen du. Bukaera ez zait oso ona iruditu, nik bukaera irakurri baina lehen banekielako zer gertatuko zen. Ala ere, liburu hau asko gustatzen zait eta irakurtzea gustatzen zaien pertsonentzat oso liburu erakargarria dela iruditzen zait. Lehenengo liburua bukatu ondoren asko gustatzen bazaizu, bigarren liburua du. Liburu hau nik irakurri egingo nuke, errealitate oso gertu dagoelako eta oso liburu interesgarria delako. Gaztea bazara edo errealitate oso gertu dauden liburua irakurtzea gustatzen bazaizu, hau da zure liburua!!!

Egilea:
Eñaut Otaño
2020-11-23

Liburu honek gaur egungo gazte baten bizitza kontatzen digu modu arinean. Ezekiel izeneko mutila dugu protagonista, 14 urtekoa. Ezekiel bere ama eta arrebarekin bizi da, emakumez inguratuta. Horrek, hainbat arazo ekartzen ditu Ezekielen bizitzara, eta askotan etxetik ihesi egiteko gogoia izaten du. Horrez gain, bere lagunak, ikas-kideak eta maitemina ezagutuko ditugu liburu hau irakurri bitartean.

Agertzen diren pertsonaiek gazteak gaur egungo gazteon jokiera berdina dituzte, horregatik,

Ezekiel nerabezaroan dagoen 14 urteko liburuaren protagonista da. Emakumez inguratuta bizi da, bere ama eta arrebarekin. Aitak, nonbait beste emakume bat ezagutu ostean, etxetik alde egin baitzuen. Ezekiel Ros deitzen diote, izan ere bere arrebaren arropak eramaten ditu jantzita eta hauek arrosa kolorekoak dira. Beraz, emakumeen eragina bere bizitzan handia da. Baita etxetik kanpo ere, bere koadrilako kide guztiak mutilak baitira: Etxe, Ola, eta Leon. Koadrilan inork ez du inoiz neska batekin inongo harremanik izan, ezta muxurik eman ere. Guztien ahotan dago zer sentituko den pausu hau ematerakoan, hau

oso ondo idatzita dago. Horrez gain, beste hainbat pertsonaiek daude, batzuk maitagarriak eta beste batzuk aspergarriak. Pertsonaiek guztiak istorioari zerbait aportatzen diote, hortaz, denak garrantzitsuak dira. Gehien gustatu zaidan pertsonaia Etxe izan da, izan ere, isila eta misterio-tsua da. Protagonistaren jokiera korapilatsua irakurleak bere azalean jartzea eragingo du.

Liburu hau arina, motza eta oso interesgarria da intriga mantentzen du eta irakurri bitartean. Hizkera informalak, irakurle gazteak erakartzen

ditu. Eleberria kapituluetan antolatua egotea oso lagungarria da, kapitulu bakoitzean gauza desberdinak gertatzen dira eta beraien artean lotura baitute. Gazteen eguneroko bizitza ezagutu nahi baduzu, liburu hau oso gomendagarria da. Liburu hau irakurri bitartean Ezekiel bakarrik izango duzu buruan.

Egilea:
Nora Rozas
2020-11-23

da, neska bati ezpainetan muxu bat ematerakoan, zein zapora izango du neska baten ahoak... Gauzak hala, egoerak beharturik, koadrila barruan apustu bat egitea erabakitzen dute, ea nor den muxua neska bati ematen lehena. Horretarako zerrenda bat egiten dute, etorkizunean lagun arteko tirabirak ekarriko dituen zerrenda...

Liburu aproposa gure adineko nerabeentzat, azken finean, istorioko protagonistei pasatzen zaiena errealitatean gure adineko gertatzen baitzaigu. Beraz errealitatean oinarrituriko fikziozko liburua da, irakurtzeko erraza eta arina, eta gehienbat, oso entretenigarria. Kapitulu

bat amaitu orduko, hurrengoa irakurtzeko gogoz zaude, beraz intrigaz josia dago. Liburu ere esaldi bizi eta laburrez dago idatzia. Beraz, neska bati muxu emateko aukera izan ez baduzu, hona hemen agian lagunduko zaituen liburua. Gomendagarria guztiz 13-14 urteko nerabeentzat.

Egilea:
Unax Uralde
2020ko Azaroaren 25a

Azeri dantza

Azeri dantza, Hernaniko jendearentzat oso garrantzitsua den ohitura zahar bat da. Hernaniz gain beste herrietan ere ospatzen da, baina ez da Hernanikoa bezalakoa. Beste herrietan (Tolosa, Urnieta, Andoain ...) dantza bat besterik ez da, baina Hernanikoa ikuskizun berezia da. Zertan datza?

Soka batetik helduta 15 laguneko kuadrila bat maskuri banarekin herriko alde zaharreko kaleetan zehar joaten dira herritarrek inguratu eta jotzera. Hauekin batera **txistulariak** doaz musikarekin erritmoa markatuz. Musikak erritmoa igotzen duenean herritarrek badakite laster aterako direla euren ezkutalekutik jendea jotzera.

Beste pertsonaia garrantzitsu bat, **azeria** da. Pertsonaia honek, bere dantzeekin, jendea entretenitzeko zeregina du.



*Azeria



*Hernaniko plazan jendea joko

Jendea ezustekotan hartzeko, lagun taldea, herriko portal, denda, tabernetatik... sartzen da, beste lekuetatik ateratzeko. Izan ere, Hernaniko kaleak bata bestearekin elkar komunikatua daude.

Ibilbidearen bukaeran, herriko plazan, lagun taldeak maxkuriak lurrean utzita, eta borobil batean jarrita, azeri-dantza dantzatzeko dute. Hau bukatzean, denok batera salto egiten dute maxkuri gainean, lehertzeko.

Azeri dantza tradizioan

Azeri dantzari buruzko lehenengo erreferentzia 1735 urtekoa da (Hernaniko udal artxiboa). Lehenengo urteetan, azeri dantza inauterietan bakarrik egiten zen. Baina, gerrate zibilaren ondoren, inauteriak debekatu egin ziren eta San Joan jaietan ospatzen hasi zen. Gaur egun, bai inauterietan eta bai San Joanetan ere ospatzen da.

Urteekin, azeri dantza aldatzen joan da. Hona hemen aldatuta batzuk:

Garai batean, azeri dantzari maxkuri-dantza deitzen zitzaien.

Aspaldi, etxeetatik pasatzen zirenean hauen jakiak hartzen zituzten.

Lehen, dantzari buruak eta lehen dantzariak soilik eramaten zituzten maxkuriak, besteek poltsikoetan irina eramaten zuten jendea jotzeko.

Orain arte, gizonezkoak soilik ateratzen ziren jotzen azeri-dantzan.



*Txistulariekin azken dantzan

Azeri dantza gaur egun

Azken urteetan aldaketa nabariak egon dira azeri dantzan:

Duela urte batzuk azeriaren pertsonaia gehitu da taldera, azeri bat buruan daukan dantzaria. Honek sokakoak ezkutatuta daudenean jendea distraitzen du. Batzuetan ere gaiztakeriak egiten ditu, esate baterako jendeari irina bota.

Aldaketarik nabarmenena zera da: 2018tik aurrera emakumezkoak ere jotzen ateratzen dira. Duela gutxitik ere haurrak

ere ateratzen dira egun batzuetan.

Urteekin aldaketak eman diren arren, dantza-joku honek Hernaniko jendearentzat inportantzia bera edo gehiago izaten jarraitzen du. Hernaniko ume, gazte zein helduentzako Hernaniko ikurretako bat da.

*ondarea.hernani.eus/hernani/urtekariak/pdf/1344.pdf

*eu.wikipedia.org/wiki/Azeri-dantza



*aspaldiko argazkia

Elkarrizketa Marcos Mateo Mujikari

Marcos urte askotan atera da azeri-dantzan jotzen. Aukera izan dut bera elkarrizketatzeko.



Marcos Mateo Mujika

Noiz hasi zinen azeri-dantzan ateratzen?

1980 urtean hasi nintzen 17 urte nituenean.

Zenbat urtez atera zinen guztira?

38 urtez, 2018 urtera arte. Orain ez naiz ateratzen jotzen, baina bestelako lanetan laguntzen diet: Maskuriak eramaten, soka eta maskuriak prestatzen, ...

Nolatan hasi zinen azeri dantzan parte hartzen? Eta zerk bultzatu zaitu hainbeste urteetan bertan jarraitzera?

Hasi nintzenez, jendea behar zuten ateratzeko, ez zuen gaur egun duen arrakasta berdina. Konbentzitu zidaten eta segituan engantxatu zidan. Asko kostatu zitzaidan uztea baina ikusten nuen besteei lekua utzi behar niela.

Urte guzti hauetan nabaritu al duzu aldaketarik Azeri dantzan? Partaideetan, jendearengan...

Urtetik urtera jende gehiago animatzen da azeri-dantzara joaten, gozada bat da!!

Aldaketarik nabarmenena 2018 urtean eman da emakumeen parte hartzearekin taldean. Aurreko urteetan egun batzuetan azeri dantza mixtoa

ateratzen zen emakume eta gizonzkoekin, baina emakumeak ez ziren azeri dantza "ofizialean" ateratzen. Gaur egun, bai.

Azeriaren pertsonaia ez da beti egon. Nolatan sortu zen?

Jendea animatzeko eta entrete-nitzeko asmoarekin sortu zen. Gaur egun oso pertsonaia maitatua da herrian.

Zergatik uste duzu Azeri dantza hain inportantea dela Hernaniko jendearentzat?

Hernaniarrek harrotasunez bizitzen dute Azeri dantza, hernaniarrrena da. Gozada bat da ikustea nola elkartzen diren bertan ume, gazte, adineko pertsonak...denak batera gozatzen. Batzuk etxetik etortzen dira, besteak berriz gupasa eginda azaltzen dira.

Zure ustetan Azeri dantzak urte askotan iraungo du, ala protagonismoa galtzen joango da?

Geroz eta jende gehiagok hartzen du parte. Ez dut uste inoiz desagertuko denik.

Ba al duzu bitxikeririk kontatzeko?

Hainbeste urtez atera naiz... Badaude mordo bat. Adibidez:

Urte batean Plaza Berriko Kutxan sartu ginen. Bertako zu-



*Azeri dantzakoak ateratzeko prestatzen

zendaria ez zen Hernanikoa eta maxkuriek ateratzen zuten soinua entzun zuenean Ertzainei deitu ziren pentsatuz kutxa atrakatzeko ari zirela.

Egun batean Garaiarreko autobusaren barruan sartu ginen bidaiariei jotzeko asmoz. Asko Andoaindarrak ziren eta ez zekiten Azeri dantza zer zen, imaginatu...

Batzuetan udaletxean sartu izan gara. Gogoratzen dut urte bat bertako langileen atzetik ibili ginela korrika, hauek jotzeko asmoz. Udaletxeko balkoira atera ginen herritarrak agurtzera.

Egilea: Uxue Sanz